

GUGGENHEIM URDAIBAI STOP plataformaren komunikatua

Gernikan, 2026ko otsailaren 7an

Gaur Gernikara hurbildu zareten lagun guztioi: ongi etorri!

Eskerrik asko denoi gaur hemen gurekin egoteagatik, eskerrik asko plaza hau betetzeagatik. Eta eskerrik asko azken urteotan erakutsi duzuen konpromiso, ausardia eta duintasunagatik.

Egun handia da Busturialdearentzat, eta egun handia da, baita ere, Euskal Herri osoarentzat. Agintekeriaren aurkako borroka asko egin behar izaten ditugu gure luraren luze-zabalean, eta gutxitan izaten dugu bidearen amaieran ezer ospatzeko aukera. Horregatik, garaipen honek herri-mugimenduen beharra eta balioa berresten du. Eta horregatik, garaipena elkarrekin ospatu nahi izan dugu. Askok eta askok zarete gure lurra defendatzeko lanean zabiltzatenak. Jaso ezazue gure babesa, adorea eta indarra. Ez izan dudarik, borroka merezi du!!

Behin eta berriro esango dugu: Guggenheim Urdaibai proiektua geuk geldiarazi dugu, herritarrok! Herritarron lanari esker baztertu dute, herritarron borrokari esker!

Proiektu hau baztertu da herritarrok **kalean borrokatu garelako**, elkarrekin lanean ibili garelako, ahotsa altxatu dugulako.

Proiektu hau baztertu da **epaitegietara jo dugulako**, gure lurra babesten duten legeak defendatu ditugulako.

Proiektu hau baztertu da desinformazioari aurre egin diogulako eta informazioa **herriz herri zabaltzeko dugulako. Herritarrei egia ikusarazi diegulako.**

Busturialdean abiatu, eta Euskal Herriko bazter guztietara joan gara. Ibili ditugu herri txikiak eta hiri handiak; plazak eta auzoak; gaztetxeak eta kultur etxeak; udalek atondutako areto dotoreak eta auzolanean altxatutako karpak.

Lagunez lagun, elkartez elkarrekin, borroka borroka, gurearen berri eman dugu, eta besteenetik ikasi. Apurka-apurka sarea sortu dugu, sare sendoa, trinkoa, eta sare horrek eutsi gaitu azkenera arte, sare horrek bultzatu gaitu garaipenera. Euriak itsasoan lez, guk ere, tantaz tanta, olatu erraldoia osatu dugu, eta horrexek hondoratu du Guggenheim Urdaibai proiektua, olatu erraldoi horrek.

Baina, hara, gure erakunde publikoek eta gure agintari politikoek diote administrazio-prozedurek ekarri dutela proiektuaren amaiera. Interesen arteko talkek. Erabaki teknikoak. Gezurra da hori, gezurra! Guk itoarazi dugu proiektua, herriak! Eta horixe kontatuko dugu aurrerantzean, horixe azalduko diegu gure ondorengoei. Jakin dezaten ezetz, agintariek ezin dutela beti gogoak ematen diena egin. Jakin dezaten baietz, herriak ere baduela hitza, herriak ere baduela agintea. Herritarrok ere badugula ingurumena zaintzeko betebeharra, gure inguruaz gozatzeko eta bizitza duinak izateko eskubidea; eta herritarrok

badugula etorkizuneko belaunaldiei mundua ahalik eta bizigarrien uzteko obligazioa.

Eta entzun ondo, agintariok: hemen gaude eta hemen jarraituko dugu. Ondo eginak txalotzeko eta astakeriak salatzeke. Jada ez du balio betiko komodinak. Zenbat aldiz entzun ote dugu: “ZUEK... denari ezetz esaten diozue!”. Nor gara *gu*, nor zarete *zuek*? Borroka honetan askotariko jendea batu gara: gazte, heldu eta adineko; herriko eta hiriko; ideologia bateko eta besteko; ikasleak, langileak, pentsionistak; ekologistak, feministak; zientzialariak, kulturgileak, legelariak. Horiek guztiak gara *gu*.

Era berean, gure lurra arriskuan dagoenean, gure etorkizuna jokoan dagoenean, ez da onargarria epelkeriatan ibiltzea, ez da onargarria kalkulu politikoak egiten aritzea. Borrokarekin bat egin behar da, bai ala bai! Bai ala bai!!

Eta ez gara gu hori baieztatzen dugun bakarrak. Nazioarteko ikerketek ere argi diote: tokiko mugimendu eta talde sozioekologistak funtsezkoak dira mundu mailan biodibertsitatea kontserbatzeko. Gure jarduna oztopatu eta kritikatu beharrean, aliatu gisa ikusi behar gintuzkezue. Egurtu beharrean, babestu. Elkarrekin, indartsuagoak izango gara; elkarrekin, mundu hobeago bat eraikiko dugu.

Horregatik, gaur, gure eskerrak argiak dira. Eskerrik asko kalean gurekin bat egin duzuen guztioi; eskerrik asko lan ikusezina egin duzuen guztioi; eskerrik asko elkarte, talde eta norbanako guztioi; eskerrik asko zaindu gaituzuenoi eta bidean aurkitutako oztopoen aurrean ez etsitzeko adorea eman diguzuen guztioi.

Borroka ez da hemen amaitzen, badakigu. Guk Urdaibai eta Busturialdea zaintzeko lanean jarraituko dugu. Biosfera-erreserbaren kontrako mehatxu zuzena desagerrarazita, orain etorkizuna idazten hasi behar dugu. Guztion artean, gure eskualdearen beharrei erantzungo dioten proiektu sozioekonomiko bideragarri eta eraginkorrak eraiki behar ditugu.

Baina gaur eten bat egin dugu. Abenduaren 16a garaipenaren eguna izan zen, eta gaur, **otsailaren 7a, ospakizunerako eguna da**. Elkarrekin lortu dugulako, herritik eta herriarentzat.

Elkarrekin irabazi dugu, eta elkarrekin ospatu nahi dugu.

Urdaibai ez dago salgai!

Euskal Herria ez dago salgai!

Gora gu, borrokak merezi du!